



MUSEOAK

Oarsoaldean eta Bidasoan
museoen eskaintza oso zabala da




HERRIZ HERRI

Herriguneak kultur ondarez
eta historiaz bete-beteta daude

Itsasoak mendia laztantzzen du

• **BIDASOA • OARSOALDEA •**



[OLATZ MITXEENA]

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

Rebeka Ruiz

Hondarribiko Alde Zaharreko harresiei begirada bat botatzearekin nahikoa izan ohi du bisitariak hirigune historikoak bidaia baten aurreikuspen guztiak beteko dituela jakiteko. Belarditik paseoan, Erreginaren Baluarteaz bisualki gozatzeko bestelako aukera bat dago, Gernikako Arbola pasa eta Santa Maria ateaureraino iritsi arte. Hiribildura sartzeko gaur egun kontserbatzen diren bi ateatako bat da. Goialdean hiriaren armarrria eta eguzki erlojua ikus daitezke.

Ateaurrea zeharkatu eta Margolarien Txokoa ikusiko dute bisitariak ezkerrean. Kanean gora egin ahala, Casadevante eta Zuloaga jauregien ondoan XVIII. mendean eraikitako udaletxearekin topo egingo dute, baita 1474. urteko Jasokundeko eta Sagarrondoko Andre Maria elizarekin ere.

Parrokiaren parean Kale Nagusiko eraikin ederrenetako bat dago: Ladron de Gebara etxea. XVII. mendeko eraikina da, familiaren armarrria ikusgai du fatxadan, eta adreilu urdin beiraztatuaz egina dago. Baina ez hori bakarrik. Etxebizitzaren aurrealdeko hormak bestelako sekretu bat gordetzen du: *Amaren madarikazioa*. Urteen joan-etorriak horman kokatutako esaldia irakurtzea zaildu duen arren, dioenaren arabera, «seme-alabak eta etxea errotik kiskali eta suntsitzen ditu».

Ibilbide ekidin ezina

Parrokiaren eskuineko albotik aurrera egingo dute bisitariak Cristobal Rojas y Sandoval apezpikuari eskainitako plazarantz, gargolaz inguratutako Etxebeste edo Palencia Etxea ikustera. Handik gora egingo dute eskuin aldearantz, Bretxa eta Nafarroako Erresumako gazteluaren azken dorreaz eta



Amaren madarikazioa elizaren parean kokatutako eraikinean dago. [REBEKA RUIZ]

Harresiek gordetzen dutena

Bidasoa ibaiaren albo batean kokatuta, Hondarribiko Alde Zaharreko txoko eta bazterrak hobeto ezagutzeko parada izango dute bisitariak ibilbide historiko honen bitartez.

bertako bista ezin hobez gozatzera. Atzealdetik inguratuko dute Karlos V. gaztelua ondoren, Arma plazaraino iritsi arte. San Nikolas kalea beherantz jarraituta, Mugarretenea Etxearekin topo egingo dute. Eskuinera eginda Egiluz jauregia edo Joana I. *Eroaren* etxea ikusteko aukera izango dute. Eraikinaren parean kokatutako kaleskak eta eskailerek Gipuzkoa plazaraino eramango dute bisitaria.

Ibilbidea azken txanpan sartuko da orduan, bertatik Done Jakue arkuia gurutzatuko baitute beherantz Polborineraino. Eraikina inguratu ondoren, San Nikolas atea ikusteko aukera izango dute bisitariak. Ate altxagarria zuen, eta Santa Maria ateaurrearekin batera gaur egun kontserbatzen diren ate bakarrak dira. San Nikolas kalea bukaeratik igotzen hasita, San Nikolas ate zaharra ikusi ahal izango dute, Juan Laborda kaletik Frantses Putzura iritsiko dira eta gora eginda, azkenik, kanoi zuloak ikusiko dituzte.

Imanol Saiz

Ate bat irekitzearekin soilik 2.000 urte inguruko bidaia egiteko aukera ematen du Irungo Oiasso Erromatar Museoak. 2006an zabaldu zutenetik, hiriko iragan urrun hori gertutik ezagutzeko aukera ematen dute. Bertan eta hiriko zenbait gunetan azken hamarkadetan egindako indusketek erakutsi dute Irunek iragan aberatsa izan zuela, eta erromatarren garaiko Oiasso hiriaren arrastoak handia izaten jarraitzen duela oraindik ere bai. Hiriko zorupeak milaka istorio ditu kontatzeke oraindik.

Urte guztian bezalaxe, udazken honetako agenda ere bidaiatzeko bete ditu museoak. Eta nola ez, egungo osasun egoerara egokitu dute.

Erromatarren garaiko arrasto ugari zutik jarraitzen dute oraindik; guztiak bisita daitezke

Museoan bertan izango dute bisitariak milaka urteko bidaia hori egiteko lehen aukera. Erromatarren garaian hain famatuak ziren termak bisita daitezke, museoaren atzealdeko lorategian hain zuzen ere. Gainera, berrerrakuntza birtual baten bitartez garai batean zuen itxura ikus daitezke.

Bigarren geltokia Erdi Aroko Xantalen ermita zaharrean izango dute historiaren zaleek. Bertan aurkitu zituzten garai bateko Oiasso hiriaren nekropolia eta hilerria. Eta egun, bertan, errauts ontziak, hezurrezko orratzak, fibulak eta pieza ugari ikusgai daude.

Irugurutzetako meategiak dira erromatarren garaia bidaiatzeko hirugarren geltokia. Oiassoko erromatarrek minerala erretzeko erabilitako labeak daude bertan, Aiako Harriko eta inguruko meatzeak ustiatzen hasi zirenean eraikitakoak. Igandero bisita daitezke, trenez gainera.

Bertaratzeko aukerarik ez dutenak, ez daitezela larritu. Izan ere, bisita berberaz gozatzeko eta Irungo kaleetan barrena ibiltzeko aukera izango dute, etxeko sofatik, *Tour Irun Roma* izeneko aplikazio mugikorraren bitartez. Igandero izango da, 11:00etan.

Erakusketak

Irteerez gain, museoak ohiko bilduma eskaintzen jarraitzen du. Betiko hiru gelek (Erromatarren eragina, Portua eta Oiasso) zabalik jarraitzen dute, eta gainera, sukaldaritzarekin lotutako erakusketa berezia ere bisita daitezke. Erromatarrek hemengo gastronomian izandako eragina jaso eta islatu dute *Kostaldeko euskal sukaldaritza* izeneko erakusketan.

Aipatutako jarduera eta irteera guztietan parte hartu ahal izateko, 943 63 93 53 telefonora deitu beharko da.

• PLAIAUNDIKO PARKEA •



Irungo erdigunetik oso gertu natura eremu paregabe bezain ikusgarria aurki daitezke, Plaiaundiko Parke Ekologikoa. Bidasoai ibaiaren eta Jaizubia errekararen arteko eremua hegazti migratzaileen geltoki bilakatu da azken hamarkadetan, nazioarte mailan natura balio handiko gune bihurtu da.

Bertatik, urtero, milaka eta milaka hegazti igarotzen dira, leku estrategiko batean kokatua baitago natura eremua. Mendebaldeko Bizkaiko Golkoaren eta Pirinioetako azken tontorren artean dago. Hortaz, bi hegazti multzo jasotzen ditu urte osoan zehar.


Alde batetik, euren migrazioan Pirinioen katea saihesten duten hegazti kontinentalek bisitatzen dute eskualdea, eta bestetik, kostaldeko lerrotik bidaiatu duten itsasoko hegaztiak.

Hegaztietatik harago, paraje berde eder batekin egingo dute topo bisitariak, arnasa hartzeko leku apropos horietako bat da.

Natur eremuko txoko guztiak gertutik ikusteko aukera izango da udazken honetan ere. Taldean [bisita gidatuak antolatu dituzte datozen aste eta hilabeteotarako] edo barka ezagutu daitezke 24 hektareako gunea. Sarreran aurki daitezkeen Ekoetxeak antolatzen ditu irteera horiek, beraz, bertan alde aurretik izena eman beharko da.

Prismatikoak hartu eta bisita gidatuetan parte hartzeko interesa dutenek, info.txingudi@ekoetxea.eus helbidera idatzi edo 943 61 93 89 telefono zenbakira deitu beharko dute. Ondorengo ordutegian bisita daitezke: egunero [jaiegunak izan ezik], 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 17:30era.

Irugurutzetako meategietan erromatarren garaiko arrasto ugari aurki daitezke. [ASIER PEREZ-KARKAMO]



Erromak Irun aukeratu zuen

Duela bi mila urteko Oiasso hiriak utzitako arrastoak jaso, ikertu eta plazaratzen jarraitzen du Oiasso Erromatar Museoak. Udazkenerako agenda oparoa antolatu dute, presentziala zein telematikoa.

Ikeme Zarate

Historia eta denboran barrena bidaiatzeko aukerak eskura jartzen dizkio bisitariari Erreterria-Oreterak. Lerro hauetan, herriaren historia, kultura zein iraganean barrena murgiltzeko hiru aukera topatuko ditu irakurleak. Lehena San Marko gotorlekua da. Bizarain mendian kokatuta, helburu militarrekin eraiki zuten 1888an. 1970. urtera arte erabili zuten. 1992an, berriz, Erreterriako Udalak erosi eta hainbat aldaketa eginda Lau Haizeta parke naturalaren parte izatera pasa zen. Gaur egun, bista panoramiko zoragarria eskaintzen du gotorlekuak ingurune natural paregabe. Egurrezko zubitik barrena helduko da bisitaria gotorleku barrura. Behealdean, bertan izandako jardura militarra gogorarazten duten elementuak birsortu dituzte: soldaduak, bolbora, metrailadoreak, kanoiak. eta bestelakoak ikus daitezke.

San Markoko gotorlekuak, Fanderiako Errotak eta Jantziaren Zentroak ondarez bete dute herria

Herritarrentzat hain berezia den San Marko Eguna bertan antolatzen duten erromeriarekin ospatzen dute, apirilaren 25ean. Gotorlekua Aste Santutik aurrera izaten da zabalik, goi denboraldian, asteazkenetik igandera 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara. Erreserba eginda, taldeek edozein egunetan bisita dezakete. Sarrera gidatuak 3 euro balio ditu eta telefonoz eskatu behar da, 943 44 96 38 zenbakira deituta.

Fanderiako Errota

Iragan industrialaren aztarna den Fanderiako Errota-Ibaiaren interpretazio Zentroa da bigarren geldialdia. 1450ean eraikia, 1996 urtera arte izan zen zabalik eta tartean, burdinola, fanderia, zerealen errota, irin fabrika eta pentsu fabrika hartu zituen. Egun erakusketak dago beheko aldean, eta errota zaharraren ehotze gunea eta turbina ikus ditzake bisitariak. Ibaiaren Etxea ere bada, eta hortaz, ibai ondarea ezagutzeko aukera ere eskaintzen du. Etxearen helburua, ondare kulturala eta ingurumen ondarea zaintzea da, ibai ardatz hartuta. Fanderia auzoko

Bidaia historia eta denboran barrena

Erreterria-Oreterako iragana ulertzeko hainbat modu eskaintzen ditu herriak. Denen artean ondarez betetako zirkuitua osatzen dute, familian goza daitezke, era erraz eta erakargarrian.



Fanderiako Errota-Ibaiaren Interpretazio Zentroa Fanderia azuoan dago kokatuta. [ASIER PEREZ-KARKAMO]

• XENPELARREN FRUITUAK •



Juan Frantzisko Petriarena Rekondo, Xenpelar [Erreterria, 1835eko urtarrilaren 13a - 1869ko abenduaren 8a] bertsolari eta idazlearen omenezko eskultura bisita daiteke Foru Plazan. 2014an inauguratu zen bertsolari handiaren omenez eta Gotzon Hiegun eskultoreak egin zuten.

• HITZEN ITZALA •



Koldo Mitxelena Elissalt hizkuntzalari eta ikerlari handiaren omenezko eskultura bisita daiteke Agirre Lehendakariaren plazan. 2017an jarri zuten bertan udalak Mitxelenaren omenez, eta Ekain Olaizola donostiarrek egindakoa da. Mitxelenaren esaldietako bat irakur daiteke bertan.

Dolores Ibarruri Zumardian kokatuta dago errota, eta larunbat, igande eta jaiegunetan bisita daiteke 10:00etatik 14:00etara. Telefonoz hartu behar da bisitarako hitzordua, 943 49 45 21 zenbakira deituta. Doakoa da.

Jantziaren Zentroa

Mendeetan barrena bidaia eskainiko dio bisitariari Jantziaren Zentroak. Alde Zaharrean kokatuta dago, Kapitain Etxean, XVII. mendeko eraikinean. Euskal Herriko jantzi originalen bilduma handiena da: garai ezberdinetako 300 jantzi baino gehiago bildu dituzte bertara. Erakusketako jantziak sei hilabetero aldatzen ditu zentroak. Beheko solairuan aldi baterako erakusketak antolatzen ditu, eta tailerrak ere eskaintzen dituzte.

Larunbatetan 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara dago zabalik, eta igande eta jaiegunetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara. Harremanetarako telefono zenbakiak: 943 49 45 21 edo 943 44 96 92.

Oarsoaldea eskualdeko herri txikiena bada ere, Lezo berezitasunez josia dago. Askorentzako ezezaguna den arren, oso herrigune erakargarria dauka eta, horregatik, Lezora lehenbizikoz etortzen den jende asko, harritu egiten da.

Izan ere, Lezo ondare kultural eta historiko handiko herria da. Bere kale harriztatuek eta oinetxeek osatzen dute hirigune historikoa, eta zer esanik ez Gurutze Santuaren basilikaz, San Juan Bataiatzailearen eliza parrokiak edota udaletxeko eraikinaz! Ezagutu nahi Lezoko hirigunea?

Artea eta historia ondoan

Lezoko hiriguneak eta bertan kokatutako eraikinek urte askotako historia eta artea islatzen dute. Gurutze Santuaren plazan hasita, bertan dauden eraikinei erreparatuz, balio arkitektoniko eta artistiko handiko elementuak aurki daitezke, hala nola plazaren izen bera jasotzen duen basilika. Ermita txiki bat zen hasieran eta XVI. mendearen amaiera aldera hasi ziren egungo basilika dena eraikitzen. Estilo errenazentista du eraikin honek eta berezitasun nagusi gisa, munduan existitzen diren bizarrik gabeko kristoren irudietako bat jasotzen du. Estilo gotiko-bizantziarrekoa da, eta balio artistiko handia izateaz gain, oso beneratua izan da antzinatik eta, gaur egun, basilikaren erakargarritasun handienetarikoa izaten jarraitzen du.

Gurutze Santuaren plazan bertan, halaber, Lezoko udaletxea dago. Eraikin hau 1742. urtean bukatu zuten eraikitzeaz baina XVIII. mende erdialdean, udaletxe bilakatu aurretik, kartzela, artxibategia, erizaindegia, bilera-aretoa, taberna eta armategia ere izan zen.

Plazan gora eginez gero, San Juan Bataiatzailearen eliza parrokiak topatuko dugu, muino txiki baten gainean. Ez dago elizaren jatorriaren berririk, baina parrokiaren idatzizko lehenengo aipamena 1399. urtekoa da.

Urte askoan zehar, Pasai Donibane-ko eta Lezoko udalerriek San Juan Bataiatzailearen eliza parrokiak parte hartu egin zuten. Pasaiako biztanleei beste parroki bat eratzeko baimena eman zitzaizkion, XVI. mendearen erdialdean, beren eliza eraiki zuten, baina diru-falta zuten eta XVII. mendearen hasiera arte ez ziren obrak hasi. Lanen emaitza, baina, zein baino zein ikusgarriagoa da!

Ondare historikoa eta naturala Lezon

Donostiatik 10 kilometrora kokatuta, Lezo 6.000 biztanleko herri bitxi eta erakargarria da. Iparraldean Jaizkibel mendiarekin egiten du muga, mendebaldean Pasaiako portuarekin, ekialdean Gaintzurizketako gainarekin, eta hegoaldean Errenteriarekin eta Oiartzun errekarrekin.



Gurutze Santuaren plaza herriaren erdialdea da. Balio handiko eraikinak daude ibertan. [MENDI URRUZUNO]

Eta plazatik haratago, Lezora bisitan etorri gero, ezinbestekoa da herrigunea zeharkatzen duen Kale Nagusian zehar paseatzea, bertako etxe bitxi, berezi zein ederrak ikusi eta oinetxeak ezagutzeko. Aipatu kalean zein hirigunean zehar dauden oinetxeek balio arkitektoniko, historiko eta kultural handia dute. Nagusienak dira: Arpire-Enea, Jamot-Enea, Paskual-Enea, Kuartela, Zabala-Etxea, Andreone...

Ingurune naturala

Ondare historiko eta kulturala, baina, ez dira Lezoko altxor bakarrak. Ingurune natural aberatseko herria da. Jaizkibel mendiaren magalean egonik, ibilbide eta paraje ederrak eskaintzen ditu Lezok naturaz eta ondareaz gozatzeko.

Ibilbide bat proposatzekotan, Olatzar-Lorbide edo baserrien ibilbidea

aipa genezake. Nekazaritza Lezoko historiaren parte garrantzitsua da, eta horri jarraiki, Lezok balio handiko baserri ugari du, hala nola Olatzar, Borda, Minkura, Bordatxo, Darieta-zar *Daita*, Miura, Iribarren, Gaintza, Apai-

Herrigunean artea eta historia nonahi daude, eta ez da asko urrutiratu behar ondare naturalaz gozatzeko

ziartzar, Itzua bekoa, San Juan Iturria, Itxue, Galardi, Arpire-enea, Maisu Cristobal-enea, Susana-enea, Saguen-enea, Jamot-enea, Mandasayana, Pikandia-enea, Paskual-enea, Kuartela, Mariya-enea, Txerrimuno, Zabala-etxea, Andreone...

Olatzar-Lorbideko ibilbidea bi ordu baino gutxiagokoa da, pertsona guztientzat aproposa. Jaizkibelgo hegoaldean igarotzen da eta esan bezala, ehunka urteko baserri osatutako auzoak zeharkatzen ditu.

Horiez gain, baina, natura ondarean gehiago murgildu nahi duenak beste hainbat ibilbide ditu herrian zehar, Xoxolurra-Alarguntza eta Altamira-Bordatxo. Edozein kasutan, hiru ibilbide horien abiapuntua eta informazio-panela Bekoerrotako kiroldegian sarreran dago.

Eta amaitzeko, natura aprobetxatuz itsasoaren urdina ikusi nahi dutenek ere, Talaia ibilbidea egin dezakete, Lezotik hasita Hondarribiraino, Jaizkibel mendia zeharkatuz.

Herri txiki bat; aukera asko. Zatoz Lezo ezagutzera!



Tren Berdeak Pagoaldea eta Arditurri lotzen ditu egun berezietan. [HITZA]

Oiartzunek altxor asko ditu bai ezkutuan baita agerian ere; norberak ezagutu ditzake bere senak gidatuta. Hala ere, turismoarekin lotzen dituen kontzeptu bat badute, horiek museoak dira.

Erik Gartzia

Oiartzunek hiru museo ditu, bakoitza bere esparrukoa, baina hirurek dute herriko ondarea ezagutarazteko helburua. Milaka urteetako industria ustiaketak utzitako arrastoak erakusten ditu Arditurriko meategietako interpretazio zentroak. Asteko bost egunetan bisita daiteke behinola mea ematen zuenaren barrunbea. Urteko edozein momentu da egokia Arditurri bisitatzeko, eta udazkenean ez dute atsedeenik hartuko. Urria eta azaroan asteazkenetik igandera, 10:00etatik 14:00etara, ezagut daiteke.

Eguraldi onarekin, bidegorritik oinez edo bizikletan paseo eder bat eman ondoren irits daiteke Arditurri-raino. Hala ere, egun seinalatuetan Tren Berdea abiatzen da Pagoaldea industriagunetik.

Arditurri, Luberri eta Herri Musikaren Txokoa familian bisitatzeko moduko guneak dira

Astelehenaren (urriaren 19a) kasua hala da da. 10:00etan, 11:00etan eta 12:00etan irtengo da Tren Berdea. Bisitak bukatzen direnean, bisitariak irteera puntura bueltatuko dira, Tren Berdean berriro. Gehienez bederatzi lagun sar daitezke COVID-19a dela eta. Horregatik, ordutegi bakoitzean hiru joan-etorri egingo ditu trenak. Aldez aurretik erreserba egin beharko da, 943 49 50 69 edo 688 89 50 68 telefono zenbakietara deituta, edo arditurri@gipuzkoa-mendizmendi.net helbidera idatzita.

Meategietatik gertu daude herriko

• HIPATIAREN LORATEGIA •



Paraje natural ederrak ditu Oiartzunek, baina harrigune an baditu txoko esanguratsuak. Hipatiaren Lorategia, esaterako. Plaza nagusitik metro gutxi batzuetara dagoen txoko ia ezkutua. 2016tik du izen hori, ikasle talde baten ekimenez; filozofatzeko toki bat nahi zuten, emakume izenduna.

beste bi museoak. Horietako bat da Luberri Ikasgune Geologikoa. Pagoaldean dago, eta Geologia, Paleontologia eta Lur Zientzien azterketa eta zabal-kundeari bideratuta dago. COVID-19a dela eta, hamar lagun sar daitezke gehienez aldi berean. Bisita gidatuak lau lagunekin egiten dituzte. Oiartzua-rrantzako dohainik da sartzea, eta besteek hiru euro ordaindu behar dituzte. Asteartetik ostiralera 09:30etik 14:00etara eta 16:00etatik eta 18:00 izaten da zabalik. Larunbatetan 10:00etan zabaltzen dute.

Herri Musikaren Txokoa da Oiarztzungo hirugarren museoa. Ehunka musika tresna ikus daitezke Ergoingo eskola zaharretan duten egoitzan. Asteartetik larunbatera 10:00-14:00 tartean dago irekita goizez, eta arratsaldez hiru orduz: 15:00etatik 18:00etara.

Matteo J A T E T X E A

Egunero irekita.

Bazkariak 13:00etatik 15:30era.

Taberna 11:00etan irekitzen dugu.

Iurrita bidea, 2 behea. Ugaldetxo.
20180 Oiartzun
Tel.: 943 49 11 94
info@amoralpuchero.com



ETXERA ERAMATEN DUGU DOAN



JATETXEAN BERTAN JASO DAITEKE



ON-LINE ETA TELEFONO BIDEZKO SALMENTA

ON-LINE KARTA www.amoralpuchero.com



943 49 11 94



667 713 584



Badiako urek sustraitutako udalerrria

**Badiaren altzoan errotutako herriak bizirik
eutsi die, egunera arte, mendeak atzera
arrantzatik jaiotako ohituren memoriari.
Museoak ez ezik, lau barrutietako kaleak
ere badira arbasoen historiaren gordailu.**

Olaia Gerendiain

Egun Pasaia bezala ezagutzen duguna aski berriki sortutako eremua da, 1805ean eratu baitzen. Historikoki, baina, Donibane eta San Pedro barrutiek osatzen zuten udalerrria, arrantzak hornituriko herriak izanik lehen horiek. Portuak urtez urte irabazitako garrantziaren fruitu jaioko ziren, XIX. mende erdialdetik aurrera, Antxo eta Trintxerpe, lehena 1890ean hainbat azpiegitura egonkortu zirenean, eta XX. mendean batuz Trintxerpe, arrantzak behar zituen langileak jaso ahal izateko.

Egun hamaika modu daude herriaren historia ezagutzeko; aipagarria da, horien artean, harrizko kale mehe bezain liluragarri bat, Donibane zeharkatzen duena Bizkaia auzoan hasi eta Alabortza senadiraino, alde zaharra osatuz. Baita San Pedroko kale nagusia ere, barrutiaren izen berekoa.

Donibanen daude XVI. mendeko berpizkunde estiloko etxaurreak (Miranda etxea), Victor Hugo frantziar idazlearen bizitoki izan zen Gabiria etxea, udaletxe zaharra, Bonantzako Kristoa, badiaren bazter guztiak ikusteko aparta den Santa Ana ermita, edo portua defendatzeko eraiki zen Santa Isabel gaztelua.

Badiari begira jarriz gero, orotariko itsasontzien sar-atera kontenplatzeaz gain, herriko bi museo garrantzitsue-

nak ere ikus daitezke uraren beste aldean, San Pedron. Euro bat baino gutxiagotatik, motora hartu eta besteertzera hel daiteke itsasoak udalerrian utzitako aztarna historikoaz gozatzeko, Euskal Herriko kultura proiektu nagusienetako bat bisitatuz: Albaola.

Faktoriak euskal itsas teknologia berreskuratzea eta balioestea du ardatz nagusi, gehienbat itsasontzi historikoak eraikiz, Euskal Herriko itsas ondarea nazioartean zabaltzeko hezkuntza eskaintzeaz gain. Hitz gutxitan, zureko itsasontzien eraikuntzari lotutako unibertso itsastarra da Albaola, eta mundu txiki hori lau haizetara zabalduz egiten dute lan. Hura ikusteko erreserbak egin daitezke 943 39 24 26 zenbakira deituz.

500 metro pasatxo ibilita Kantauri itsasoko atunontzi klasikoa den *Materdago* porturatuta, kostaldean zehar irteeraren batean ez dagoenean. Museoak da ontzia. Itsas kulturaren eta marinelen bizitzaren gaineko ekintza ugari eskaintzeaz gain, programa ekoaktiboen bidez sentsibilizazio eta ingurumen hezkuntza egitasmo asko eskaintzen dituzte. Jarduerekin bat egin daiteke 619 81 42 25 telefono zenbakiaren bidez.

Ezin ditugu ahaztu, jakina, Antxo eta Trintxerpek eskaintzen dizkiguten aukerak ere, haien artean, txikienekin jolasean aritzeko gune zabalak eta lurraldeko gastronomiaz gozatzeko taberna herriko berdingabeak.



San Juan baleontziaren eraikuntza prozesua, Albaola Itsas Faktorian. [ALBAOLA]



Motora, Pasai Donibanetik ateratzen. Atzean, Santiago plaza. [OLAIA GERENDIAIN]



ARTIZARRA
NEKAZALTURISMOA

- 6-7 laguneko taldeentzat
- 3 logela bikoitz, bakoitza bere bainugelarekin eta sukalde-egongela
- Frontoia eta berdegune zabala
- Naturaren erdian, baina herrigunetik oso hurbil

Zimizarga 46. Hondarribia.
Tel.: 655 721 834.
artizarra2004@gmail.com
www.nekatur.net/artizarra

ZURE NEURRIRAKO PLANAK OARSOALDEA ESKUALDEAN

ERRENTERIA · LEZO · OIARTZUN · PASAIA



PLANAK FAMILIAN

Etxeko txikienekin egiteko plan aproposak gure herri eta museoetan: hurrekin egiteko ibilbide errazak, eskualdeko museoen eskaintza eta familientzat aproposak diren aisialdirako beste jarduera ugari.



PLANAK NATURAN

Ulia eta Jaizkibel mendietan kostaldeko ibilbideak, Lezoko ingurunea ezagutzeko ibilbideak, Aiako Harria Parke Naturala eta Lau Haizeta parkean ibilbide gidatuak, Arditurriko bide berdea eta historiaurreko ibilbideak, besteak beste.



KRESALEZ BETERIKO PLANAK

Pasaia badiak kresal kutsua duten plan ugari eskaintzen dizkigu: belaontzi klasikoan nabigatu, piraguan ibili, baleontzi baten eraikuntza ikusi edo atun-ontzi batean bizitza nolakoa den ezagutzeko planak, besteak beste.



ARGAZKIAK: MENDI URRUZUNO

MUSEO GUZTIAK SARRERA BAKARRAREKIN

Eskualdeko museoak sarrera bakarrarekin eta erdi prezioan bisita ditzakezu museoen bonoa eskuratuz. Aiako Harria Parke Naturalean hasi eta Pasaia badiaraino, lurraren eta itsasoaren doinuan dantzan ibil gaitzke eskualde honetako altxor preziatuenak ezagutzuz.



oarsoaldeaturismoa.eus

943 494 521

Oarsoaldea Turismoa @oarsoaldeaturismoa @OarsoTurismoa